

[Eusk/Cast] Ante el desahucio de hoy en Artekale

AZET ETXEBIZITZA SINDIKATUA :: 23/09/2024

Tres vecinos acaban de ser desahuciados aquí mismo, en Artekale, en el centro de Alde Zaharra de Bilbo.

[Euskara]

Hiru bizilagun etxekaleratuak izan dira hemen bertan, Artekalen, Alde Zaharreko bihotzean. Auzokideek adierazitako elkartasunari entzungor eginez, bortxaz kanporatu dituzte beren bizitokitik, eta kale gorrian utzi dituzte inongo alternatibarik gabe.

Badakigu pobreen aurkako gerrak aurpegi asko dituela, baina etxegabetzeena, zalantzarik gabe, haren adierazpenik krudelenetako bat da.

Etxekaleratuak izan diren hiru gazteak urte luzeak hutsik zeramatzan auzoko etxe batean bizi ziren, eta elkarbizitza ona zeukaten auzokideekin. Duela hilabete batzuk etxejabeak desokupazio enpresa bat bidali zuen, etxean bizi ziren gazteak indarrez eta era ilegalean etxekaleratzeko helburuarekin. Orduko hartan ez zuen lortu, baina oraingo honetan bai, bide judiziala hartuta.

Esanguratsua da etxekaleratzea kautelazko desalojoa onartu ondoren gertatu izana. Horrek esan nahi du etxekaleratzea gauzatu dutela epaiketa egin aurretik. Beste era batera esanda, gure kideek ez dute izan aukerarik epaitegietan beren burua defendatzeko. Hori gutxi ez, eta instituzioek ukatu egiten diete ezein alternatiba habitazional edota larrialdi egoeretarako errekurtsio. Pobreen eguneroko ogia, zer esanik ez migrantzailea ere baldin bazara.

Etxebizitza legeak, etxekaleratzeen aurkako luzamenduak, ezkutu sozialak, alderdi sozialdemokraten arteko akordioak... Dena da paper errea. Gezurrak. Hitzontzikeria.

Ongi dakigu hilabeteotan etxekaleratzeek ez dutela etenik izan, izan horiek legezkoak edo legez kanpokoak, kamuflatuak edo esplizituagoak. Edo gaurkoa bezalakoak: kapitalaren adar armatua den poliziarekin bitarteko, hiru gazte bortxaz kale gorrian utziz eta jabetza pribatua izateko ustezko eskubidea defendatuz gure bizitzen gainetik.

Beste etxebizitza huts bat, hiru pertsona gehiago kale gorrian. Pobreen kontrako gerrak ez du etenik.

Horregatik, etxegabetzea salatze eta kaleratuei elkartasuna adierazteko, gaur arratsalderako manifestazio deialdia egiten dugu. Mobilizazioa 19:00etan abiatuko da Santiagotik.

Gaurko gertakarien aurrean berretsi egiten gara gure klasearekin antolatzearen

aldeko gure apustuan. Gure eta gure auzokideen etxebizitzak defendatuko ditugu hortzez eta haginez, eta etxekaleratze bakoitza barrikada bilakatuko dugu.

Pobreon kontrako gerra gelditu!

Inor ez etxerik gabe!

Batu sindikatura!

[Castellano]

Tres vecinos acaban de ser desahuciados aquí mismo, en Artekale, en el centro de Alde Zaharra. Han sido desahuciados de manera violenta, pasando por encima de la solidaridad mostrada por las vecinas y dejándolos en la calle sin ningún tipo de alternativa.

Sabemos que la guerra contra los pobres tiene muchas caras, pero la de los desahucios, sin duda, es una de sus más crueles expresiones.

Los tres jóvenes desahuciados vivían en una casa que llevaba años vacía y mantenían buena relación con sus vecinas. Hace unos meses el propietario envió una empresa de desocupación con la intención de desahuciar a los jóvenes por la fuerza y de forma ilegal. No lo consiguió entonces, pero esta vez lo ha logrado por la vía judicial.

Es significativo que el desahucio se haya producido una vez aceptada una petición de desalojo cautelar. Esto quiere decir que han ejecutado el desahucio antes de que se haya celebrado el juicio. Por lo que, nuestros compañeros no han tenido ni siquiera la oportunidad de defenderse en un juzgado.

Además las instituciones les niegan la posibilidad de cualquier alternativa habitacional o cualquier recurso de emergencia. El pan de cada día de los pobres y más aún si son migrantes.

Leyes de vivienda, moratorias antidesahucios, escudos sociales, acuerdos entre los partidos de la socialdemocracia... Todo es papel mojado. Mentiras. Palabrerío.

Sabemos perfectamente que durante estos meses no ha parado de haber desahucios, legales o ilegales, camuflados o más explícitos. O como el de hoy: con la policía ejerciendo de brazo armado del capital, dejando violentamente a tres jóvenes en la calle y garantizando el supuesto derecho a la propiedad privada incluso por delante de nuestras vidas. Otra casa vacía, otras tres personas en la calle. La guerra contra los pobres no se detiene.

Por ello, para denunciar el desahucio y mostrar solidaridad con los compañeros desahuciados llamamos esta misma tarde a una manifestación 19:00 Santiagotik

Ante los hechos del día de hoy solo nos queda redoblar nuestra apuesta por organizarnos y encontrarnos con nuestra clase, por defender nuestras casas y las de nuestras vecinas con uñas y dientes, y por hacer de cada desahucio una barricada.

Pobreon kontrako gerra gelditu!

Inor ez etxerik gabe!

Batu sindikatura!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-ante-el-desahucio>